



# KISULABEA

Kisua edo karea egiteko labe hauen sorrera XVIII. mendearen hasieran kokatzen dugu: gose haundiko garaia zen eta baserritarrak kisu edo kare biziarekin alorretan uzta haundiagoa ateratzen zutela ohartu ziren.



# Egitura fisikoa

Kisulabe (edo karobi) hauek badute labe zilindriko gangadun bat eta harriaz hornitzeko sarrera bat goiko aldetik, egurra sartzeko beste bat behetik “agoa” izenekoa eta honen azpitik hautsa ateratzeko beste sarrera bat, “auskoa” izenekoa. Aurretik estalpe txiki bat, “legorra” izeneko, izaten ohi zuten.

Karearria lehengaia izanik, kisulabeak honen ondoan egiten ziren; eta maldan, goitik eta behetik erraz sartzeko.

# Prozesu latza

Pribatuak edo auzoarenak izaten ohi ziren; bertan, 6-8 lagunentzako taldeak aritzen ziren, labearen tamainaren arabera. Iratzea izan ezik, sutako edozein egur edo sasi erabiltzen zen.

Hasieran karearria tenperatura apalean egosten zen, 1.000<sup>o</sup> iritsi arte. Horrela bost edo sei egunez

mantendu behar zen, karearria  
kare edo kisu bizia bihurturik,  
emeki-emeki bolumena galtzen  
zuen bitartean. Bi egun edo  
hozten utzi eta gero ateratzen  
zuten, auzoan banatzeko.

